



Berria.info » Papereko Edizioa » Plaza



2013-02-10

LITERATURA. 'ZINTZOEN SALDOAN'

Sukaldetik ez-lekuetara

MIKEL ASURMENDI

Egilea: Jon Alonso.

Argitaletxea: Txalaparta.

Justuen samaldan dabil Enekoitz Ramirez, onen aldean. Bera dugu *Zintzoen saldoan* nobelaren protagonista. Gaiztoen «saldan» murgilduta aritu da iraganean: ETAko kide izana da, preso ohia, arte-faltsutzailea, jattetxe-lapurra... Hari egozten dio Poliziak, hain zuzen ere, Donostian eman duten azken *paloa*. Oraingoan, baina, Kepa Pedrotegi hilik aurkitu dute. Sukaldari izarretako bat. Zintzoen saldokoa da, zen Pedrotegi.

Jon Alonsok *Camembert helburu* saio-nobelako Ramirez biziarazi du: Lanbas. Alias edo goitizena, irakurlearen gustura. Enekoitz Ramirez Goikoetxea ez baita edonor. Edo, edonor ote Lanbas koitadua? Nola gerta.

Donostian eta Iruñean dabil Lanbas, Etxaurin gordeleku duela. Bilbo, Loiu eta Parisko aireportuak ere ezagutuko dituzu harekin. Ondoan ditu Florinda —Flori; bereziki bera—, Toni, Martiartu, Andrea... Gaiztoen sa(ma)ldakoak dituzu horiek.

Balbino Bilbao Ventura abokatuak jarri du Lanbas zintzoen aldean; Fran Bildosola tarteko. Daniel Ursua-ren peskizan hegaldatuko da Mexikora, Ursua DFn bahitu baitute. Pedrotegiren lagun zintzoa hau ere. Venustiano Simon *Venus* kazetaria eta Fonseca sikarioa lagun bertaratu da Lanbas.

«To eta no, horrelako lagunekin, zertarako etsaiak?», pentsatu dut.

Badu sukaldaritzatik, badu politikatik, badu suspentsetik nobelak. Eta baduzu irri egiterik! Eta nola, irakurle. Baduzu erudiziotik edaterik ere. Ez Lanbasek eta enparauek pattarretik eta drogatik bezainbeste, baina hitzez horditu zaitezke. Bapo ase ere!

Eliteko sukaldaritzaz ikasterik duzu, baita Michelin izarrak nola banatzen diren jakin ere (Basque Culinary Center gogoan). Hildakoaren ibilerek emanen dizute horren berri. Ursuaren arrastoa izaria hartuko diozu euskal sukaldaritzari. Ibilera legezkoen bidean, ikasiko duzu legezketasunaz harago joatea ere badela. Gure mundua gain behera doala? Bada, beste mundu bat «asmatu», eta kito. Beharrak hala aginduz gero, asmatu eta «berrasmatu» ere. Kea saltzea gutxi bailitzan, sukaldari horiek airea saltzen baitute. Baita guk herritar koitaduok irentsi ere. Bon, nobelan halatsu ageri da. Fikzioa duzu. Haatik, badakizu, fikzioa da errealitatea hobekien islatzen duena.

Zerk salba gaitzake mundializaziotik? Zerk globalizaziotik? Mundura irteteko aireportuetatik pasatzea ez da samurra. Ez-lekuak dituzu horiek. Sukaldeetatik ez-lekuetara mudatzen ari da gizateria. Gaiztoen saldan ibiliz gero, malo. Zintzoen saldan ibilita ere, neke da bereizten nor den zintzoa eta nor gaiztoa. Sukaldariak atondutako saltsak —*hitzak* idazteko zorian nintzen, baina horiek ere ez dira haienak— gaizki ordaindutako euren bekadunek lodituak izan ohi dira.

Idazleak zintzoen saldoan paratu du Lanbas, baita ibilera horretan hitzak ondu ere. Zirt eta zart ari zaigu «gure» Alonso Quijano. Badu erudiziotik. 185. orria lekuko. Hitzen jostagintzaz ari naiz. Alta, ordurako, suspentseari eta irriari eusteaz gain, mamiaz bete du eleberria. Eleberria ele berriek egiten dute. Jon Alonsok aspaldi gainditu zuen literaturaren batxilerra. Ez dezala, beraz, Lanbas garbitu, otoi. Gaiztoen nahiz zintzoen saldoko lan zikinak berak egin behar baditu ere.

Lanbasek Florindarekin daukan *rolloan* salbazioa antzeman daitekeela iradoki digu Alonsok. Bada, landu ditzagun maitasuna eta komunikazioa. Literatura harreman modu ona izan daiteke. Ene komuneko apalategian badu tokirik *Zintzoen saldoan* nobelak. Eta Michelin gidak ez dauka ziorik, pitoz goiti edo beheiti aritu ere. Batek sinesten du, edo ez, eta hor senak agintzen du.